



Subjuntiboa

Euskaraz, Euskara mintzatuan, batez ere, inguruko hizkuntzetan baino askoz ere gutxiago erabiltzen da subjuntiboa. Horren ordez beste zenbait baliabide erabiltzen ditu, nominalizazioak. Aditz erroa erabili behar da beti

Joan nadin/Har dezaten

Subjuntiboa beti menpeko esaldietan azaltzen da eta lau erabilera nagusi dauzka: nahi, desio, helburu edo agindua.

1. Helburuzko perpausak

Zertarako galderari erantzuten diote helburuzko perpausak. Kasu hauetan –N atzizkia hartzen dute. Kontutan hartu bi aditzek, menpekoak eta nagusiak, subjektu bera dutenean –T(z)EKO nominalizazioa erabiltzeko joera dagoela.

Zertarako deitu du Aitorrek? Berarekin joan nadin

Ez ditugu gauzak egiten besteek desegin ditzaten

Neuk edateko ekarri dut ardoa

2. Guraria edo nahia adierazten duten perpausak

Kasu hauetan ere aditz laguntzaileak –N atzizkia hartzen du.

Berarekin egon zaitezen komeni da

3. Aginte-perpausak

Aginteran 1. pertsonan ez dago adizkirik. Hauen ordez, subjuntiboko orainaldiko adizkiak erabiltzen dira. Antzeko zerbait gertatzen da 3.pertsonan, eguneroko euskaran, subjuntiboko orainaldiko adizkiak erabiltzen dira, berezko formak zaharkituxe geratu direlarik.

Normalean 1. pertsonako adizkiek hartzen dute –N eta 3.pertsonakoek –LA hartzen dute.

Has gaitezen lanean behingoz

Aurki dezagun leku hobe bat

Kepak egin dezala = Kepak egin beza

Esan ditzatela nahi dituzten astakeria guztia



Zeharkako aginteretan –T(z)EKO atzizkia erabiltzen bada ere, subjuntiboa erabil liteke.

Ahalik eta lasterren ager zaitezen agindu du

Botoa eman dezagula eskatzen digute sindikatuek



4. Perpaus osagarriak

Azpian aginte-perpaus daukaten perpaus osagarrietan ere subjuntiboa erabil daiteke. Kasu horretan aditz lagunak –LA atzizkia hartzen du.

Etor zaitez? Etor zaitezela (= etortzeko) esan dizut

Nahi eta nahiago aditzekin

Aditz nagusiak eta menpekoak subjektu ezberdina dutenean-T(z)EA nominalizazioa erabili ohi da. Horren ordez subjuntiboa erabil liteke.

Opa eta Espero aditzek ere antzera egiten dute.

Berehala hemen azal zaitezten (= zu azaltzea) nahi dut

Zuk hori egin dezazun (=zuk egitea) nahiago dut

Zoriontsuak izan zaitezten (=zuek izatea) opa dizuet

Oporrak ondo pasa ditzazuen(=zuek pasatzea) espero dut

ERLATIBO gisa

hau oso gutxitan gertatzen da. Etorkizun “gertagarria” azaltzeko balio du:

- Etortzen direnei azalduko diegu ariketa.
- Etor DAITEZENEI azalduko diegu ariketa

Honen barruan beste bi aukera aipatu beharko genituzke: -eNEAN eta -en ARTE, bi horiek subjuntiboa har baitezakete.

Miren azalTZEN DENEAN joango gara.= Miren azal DADINEAN joango gara.

Zuk lana bukaTU ARTE ez dira abiatuko = Zuk lana buka DEZAZUN ARTE ez dira abiatuko.

BELDUR IZAN aditzaren menpe ager dakiguke subjuntiboa.

Beldur dira berandu agertuko ote garen = Beldur dira berandu ager GAITEZEN.



-Noiz erabiliko dugu “-n”?



a-) Borondatezko aditzei loturik azaltzen zaigunean: “nahi izan”, “eskatu”, “erregutu”, “komeni”...

Nire seme- alabak sendagile izan DAITEZEN nahi dut.

Komeni da zu euskaltegira joan ZAITEZEN.

b-) Helburua aditzera ematen denean.

Zuzen DEZAGUN ekarri ditugun apunteak.

Ogia eros DIEZAIOSUN eman dizut dirua.

c-) Lehenengo pertsonetan aginterazko forma adierazteko (gogoratu pertsona hauek ez dutela aginte adizkirik).

Bota DEZAGUN Jon uretara.

Esan DIEZAIOSUN egia elkarri.

Isil NADIN burugabekeria gehiago esan gabe.

- Noiz erabiliko dugu –ela?

a-) “-(e)la” hartzen duten aditzek zerikusi handia dute aginterarekin (ezazu –dezazula).

Hala izan DADILA

Etor DADILA.

Adibide hauetan ikus daitekeen bezala esaldi lokabeak izan behar dute. Arestian aipatu ildotik aditz batzuek, agintera kutsua dutenek, _LA bereganatzen dute.

Isilik egon ZAITEZELA esan dizut.

Zure semea izan DEZALA erregutu diozu.

